

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZARTE POLITIKEN, ADINEKOEN ETA HAURREN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 18an hartutako erabakiaren laburpena: 2021ean informazioa, sentsibilizazioa, prebentzio eta gizarte sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariotza xede duten jarduera eta ekintzetarako dirulaguntza-deialdia egiten da horren bidez

BDNS(Identif.): 554636

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>).

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/554636>)

Lehen. Onuradunak

Deialdian elkarte, fundazio eta entitateek parte hartu ahalko dute, baldin eta honelako ekintzak egitea esanbidez jasota badaukate beren estatutuetakoa xedeetan: gizarte-prebentzioari eta -sustapenari loturiko ekintzak, edo zailtasun sozialeko egoeran dauden pertsonen elkartasuna adierazteko eta laguntzeko ekimen zuzenak egitea xede dutenak.

Orobat izan ahalko dira onuradun pertsona fisiko edo juridikoen elkarte publiko edo pribatuak, ondasun komunitateak, edo beste edozelako ekonomi unitate edo ondare bereziak, nortasun juridiko propioz izan gabe ere dirulaguntza ematea dakarten proiektu edo jarduerak burutzeko gai badira.

Diru-laguntza eskatzen duten pertsonak edo erakundeek Gasteizko udalerrian izan beharko dute helbidea, salbu eta eskatzaileak udalaz gaindiko erakundeak badira eta diru-laguntzaren xede diren ekimenak Gasteizko udalerrian garatzen badira eta udalerririk horretarako herritarrei zuzentzen bazaizkie, betiere 3. kapituluan garatutako kontzeptuetara egokituta. Pertsona juridikoen, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo, hala badagokio, EAEn dagokion Erregistro Publikoan izena emanda eta datuak eguneratuta eduki beharko dituzte.

Bigarrena. Helburua

Gasteizen 2021ean gizarte proiektuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak ematea.

Hirugarrena. Oinarriak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 18an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren 2021eko ekitaldiko aurrekontuetako 11.11.2301.480.45 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez 125.000,00 euro baliatu ahalko dira horretarako.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, oinarri hauei dagokien deialdiari buruzko laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 18a

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
ROSA ANA URTARAN URTARAN